



## **Josu PENADES**

*Lauaxeta: historian hezurmamituriko sinesmena*, 1996,  
Deustuko Unibertsitatea (Saiakera / Ensayo)

*Iluntzero elkarrekin*, 2001, Ibaizabal (Haur-gazte  
literatura / Literatura infantil y juvenil)

*Hurrengo itsasgoren zain*, 2002, Ibaizabal (Nobela /  
Novela)

*Etxea*, 2006, Alberdania (Nobela / Novela)

*Jantzi beltz bi*, 2009, Alberdania (Nobela / Novela)

## En diálogo con la realidad\*

JOSU PENADES

Unos amigos están pintando la casa que acaban de construir en la montaña navarra. Estos amigos míos han remodelado la edificación que albergaba un horno que antiguamente se utilizaba para cocer pan y hornear mazorcas; por eso han decidido llamar Labetto<sup>1</sup> a su casa, por lo del horno y porque no es grande. Iratxe es arquitecta, y desde que lo heredó ha querido hacer algo con el horno que pertenecía al caserío legado por sus padres (este caserío lo vendieron, ya que no encontraron la forma de repartirlo entre los hermanos. Sin embargo, a Iratxe no le resultó difícil que el horno quedara en su poder). El año pasado Iratxe —ella también— se quedó en paro y Xabier, su pareja, le sugirió que quizá había llegado el momento de empezar a pensar qué se podía hacer con el horno. Nunca he visto sacarle más provecho a escasos sesenta metros cuadrados. Una vez terminada la casa, la están pintando, y ayer nos reunimos unos cuantos amigos para ayudarles.

Andábamos preparando el almuerzo y con nosotros estaban también Irantzu y Andoni, los hijos de Iratxe y Xabier, esperando a que llegaran sus amigos. En uno de los silencios, Irantzu explicó que su profesor les dijo que el próximo curso verían mucha literatura dentro de la asignatura de Lengua. Inmediatamente, Andoni preguntó: “¿Qué es literatura?” Xabier me miró, dándome a entender algo así como que me tocaba responderle. “Literatura es un cuento, una historia y... cosas así”, le respondió Irantzu, con naturalidad infantil.

220

Uno de los amigos, Iñaki concretamente, dio el primer paso y nos confesó que no leía gran cosa más allá de cuestiones referidas a su ámbito laboral. Todos los allí reunidos éramos gente instruida, con estudios universitarios más exactamente, y todos y cada uno de ellos reconocieron, excepto Iratxe, que les ocurría lo mismo que a Iñaki. Entendía lo que les pasaba a mis amigos; cómo no iba a entenderlo, si lo que manifestaban no era más que un reflejo significativo de lo que se puede adivinar a nuestro alrededor. En esta sociedad nuestra, que vive transida de prisa, manejamos cada vez más información (por temas laborales y de otro tipo), la cual a menudo no tiene demasiada relación con el significado originario de las cosas. Esto parece imprescindible si se quiere sobrevivir en este mundo; sacar un tiempo para otro tipo de lecturas es perder el tiempo. Que quede claro: aunque a algunos la lectura nos mantenga vivos, como diría Ricardo Piglia, yo no pido que todos caigan en semejante adicción, porque este proceder, además de sospechoso, puede resultar también patológico.

---

\* Traducción realizada por Alberto Errea Irisarri

1. *Labetto*: “hornito” (nota del traductor).

## Errealitatearekin solasean

Josu PENADES

**N**afarroako mendialdean egin berri duten etxea margotzen ari dira lagun batzuk. Ogia egosteko eta artaburuak erretzeko labea zegoen eraikina baliatuz moldatu dute beren etxea nire lagun horiek; horregatik erabaki dute *Labetto* deitzea, labearenagatik eta handia ez delako. Iratxe arkitektoa da, eta hartu zuenetik nahi izan du gurasoek utzitako baserriaren ondoko labearekin zerbait egin (baserria bera saldu egin zuten, neba-arreben artean banatzeko modurik aurkitu ez zutelako. Iratxeri, hala ere, ez zitzaion zaila gertatu labea bere esku geratzea). Joan den urtean langabeziak harrapatu zuen Iratxe ere eta Xabier bere bikotekideak iradoki zion beharbada iritsi zela labearekin zer egin zitekeen pentsatzen hasteko garaia. Inoiz ez dut ikusi hirurogei metro koadro eskasi probetxu handiagorik ateratzen. Behin etxea bukatuta, margotzen ari dira, eta haiei laguntzeko bildu ginen atzo zenbait lagun.

Hamaiketako egiten genbiltzan eta geurekin zeuden Irantzu eta Andoni ere, Iratxe eta Xabierren seme-alabak, lagunak noiz etorriko zain. Sortu zen isiluneetariko batean, Irantzuk azaldu zuen irakasleak esan ziela datorren ikasturtean literatura asko ikusiko zutela Hizkuntza irakasgaiaren baitan. Berehala galdetu zuen Andonik: «Zer da literatura?». Niri begiratu zidan Xabierrek, ea ez ote nion erantzun behar-edo aditzera eman. «Ipuinak-eta dira literatura», erantzun zion Irantzuk, berezkotasuna bortxatu gabe.

# 221

Lagunetarikoa batek, Iñakik hain zuzen, eman zuen aurreneko pausoa eta aitortu zigun berak ez zuela gauza handirik irakurtzen lan-esparruko kontuez gain. Mahaiaren inguruan geunden guztiok ginen eskolatuak, *unibertsitatetuak* esan beharko genuke zehatzago hitz eginez gero, eta guztiak onartu zuten, Iratxek izan ezik, Iñakiri bezala gertatzen zitzaiela beretariko bakoitzari ere. Ulertzen nuen nire lagunei gertatzen zaiena; nolatan ez nuen ulertuko, bada, gure inguruan antzeman daitekeenaren isla esanguratsua besterik ez baitzen aditzera ematen zutena. Zitzu bizian dabilen gure gizarte honetan gero eta informazio gehiago darabilgu esku artean (lan-kontuengatik eta beste), gehienetan *gauzen* berezko esanahiarekin zerikusi handirik ez daukana. Hori ezinbestekoa da mundu honetan biziraun nahi izanez gero; bestelakorik irakurtzeko tarte bat ateratzea, aldiz, denbora galtzea da. Argi gera dadila: irakurtzeak bizi gaituen arren zenbaitzuk, Ricardo Pigliak esango lukeen bezala, nik ez dut eskatzen guztiak erori behar dutenik halako mendekotasunean, jarrera hori patologikoa den neurrian susmagarria ere badelako oso.

—Eta zuretzat, zer da idaztea? —galdetu zidan Joxemik, bete-betean.

Galderari erantzun baino lehen, uzteko irakurtzeaz zertxobait esaten eskatu nion. Eta azaldu nien literatur lan batek unibertso bat sorrarazten duela, nik estimatzen ditudan literatur lanek

—Y para ti, ¿qué es la escritura? —me preguntó Joxemi, de lleno.

Antes de responder a la pregunta, le pedí que me dejara decir algo sobre la lectura. Y les expliqué que un trabajo literario contribuye a crear un universo, al menos los trabajos literarios que yo aprecio; que en ellos, resumiendo, podemos acercarnos a la naturaleza humana, y, en consecuencia, encontrar la oportunidad de reflexionar sobre algún rasgo distintivo de la misma. Ahí me detuve, creyendo que no era momento para dilaciones.

Vamos entendiendo la realidad en la medida en que somos capaces de formularla. Y la literatura ayuda a formular dicha realidad humana, la cual, como es sabido, nunca cesa en su desarrollo. ¿Pretendemos explicarnos a nosotros mismos en qué consiste la realidad o preferimos que otros hagan ese esfuerzo por nosotros? Recibimos en herencia uno u otro imaginario cultural, según el lugar en el que nacemos y, a su vez, seguiremos transformando o construyendo dicho imaginario el resto de nuestras vidas. La cuestión es si estamos embarcados en esa tarea conscientemente o, por el contrario, somos arrastrados por las circunstancias; y, naturalmente, si uno se percata de lo que tiene entre manos, también puede preguntarse cuál pudiera ser el modo que más le satisfaría para llevar a cabo tal empresa. Estas reflexiones, me las guardé para mí.

—La lectura, sin embargo, también nos hace más vulnerables —añadió Xabier—. El que lee va conociéndose a sí mismo porque cultiva la capacidad de ponerse en la piel de los demás y la sensibilidad que desarrolla al hacerlo le hace sufrir, porque suele vivir de cerca lo que los demás padecen.

222

Intuí que Xabier —sin nombrarla, pero directamente— se estaba refiriendo a Iratxe.

Tomó la palabra Santi (él es biólogo):

—En algunas investigaciones se ha visto que los grandes primates (gorilas, orangutanes...) o los elefantes son capaces de sentir no sólo empatía sino también simpatía. Por ejemplo, entre los pequeños primates cuando una cría se rompe una pata, tiene que soportar el dolor si quiere seguir la marcha del grupo; entre los grandes primates, por el contrario, la madre del animal que se ha roto la pata intentará ayudar a la cría, cargándosela a la espalda o del modo que considere más oportuno. Se me ha olvidado decir: *empatía* sería percatarse de lo que el otro podría sentir y *simpatía*, además de lo anterior, también comportaría ayudarle.

—Entre los seres humanos —dijo Xabier— no es fácil tomar la distancia adecuada respecto a los que nos rodean. El que se aleja demasiado no puede ayudar. De acuerdo. Pero el que no acierta a ponderar las lindes, ¿no corre el riesgo de entrometerse en la vida del otro y, así, además de no ayudar, incluso llegar a hacerse daño a sí mismo?

—Yo hace un tiempo pensaba —tomó de nuevo la palabra Santi— que uno cuanto más sabía, más sufría; por tanto, que no convenía saber mucho, ya que esto hacía sufrir en exceso. Durante años he estudiado el comportamiento de los primates, y hoy en día las preguntas me han superado. Podríamos empezar por concretar qué entendemos por *sabiduría* y después preguntarnos qué es ser *débil* o *fuerte*, y a continuación en qué consiste el *triunfo* o el *fracaso* y si se tienen ganas...

behintzat; beretan, laburbilduta, pertsona baten mundua ikus dezakegula, eta, haren bidez, gizakiaren ezaugarrien baten inguruko gogoeta egiteko abagunea aurkitu. Hor gelditu nintzen, ez zela luzamenduetarako unea iritzi izanik.

Adierazteko (*formulatzeko*) gai garen heinean goaz errealitatea ulertzen. Eta literaturak etengabe garatzen doan errealitate bizia adierazten laguntzen du. Norberak adierazi nahi diegu norberaren buruari errealitatea zertan datzan ala beste batzuei utzi nahi diegu lan hori egiten? Kultur iruditeria bat edo beste jasotzen dugu herentzian, jaiotzen garen tokiaren arabera, eta, era berean, iruditeria hori aldatzen edota eraikitzen jarraituko dugu gure bizitzan; kontua da ohartuta ala oharkabean ari garen jardun horretan, eta, behin horretaz jabetuta, jakina, nola nahi duen aritu ere galde diezaioke nork bere buruari. Hausnarketok, neure kolkoan gorde nituen.

—Irakurtzeak, ordea, ahulagoak ere egiten gaitu —erantsi zuen Xabierrek—. Irakurtzen duena bere burua ezagutzen doa beste batzuen larruan jartzeko gaitasuna lantzen duelako eta horrenbestez garatzen duen sentiberatasunak sufriarazi egiten dio, besteek pairatzen dutena hurbiletik bizi ohi duelako.

Iratxez —zeharka baina zuzen-zuzenean— ari ote zelako susmoa hartu nion Xabierri.

Santik oratu zion hitzari (biologoa da bera):

—Ikerketa batzuetan ikusi da primate handiak (gorilak, orangutanak...) edo elefanteak enpatiarako ez ezik sinpatiarako ere gai direla. Adibidez, primate txikien artean kumeren batek hanka hausten duenean, eutsi egin behar izaten dio oinazeari baldin eta taldearen martxa jarraitu nahi badu; primate handien artean, berriz, hanka hautsi duen animaliaaren ama kumeari laguntzen saiatuko da, bizkarrean hartuz edo uste duen erara. Ez dut esan: enpatia besteak senti lezakeena antzematea izango litzateke eta *sinpatia*, bestearekin sentitzeaz batera, besteari laguntzea ere bai.

—Gizakien artean —esan zuen Xabierrek— ez da erraza izaten ingurukoenganako distantzia egokia hartzea. Urrunegi kokatzen denak ezin du lagundu. Onartuta. Baina gehiegi hurbiltzen dena ez al da inoren galtzetan sartzen, eta, halatan, besteari lagundu ez eta norbere buruari kalte egiteko arriskuan murgiltzen?

—Nik garai batean pentsatzen nuen —heldu dio ostera ere hitzari Santik— zenbat eta gehiago jakin orduan eta gehiago sufritzen zela; beraz, ez zela asko jakitea komeni, asko sufriarazten zuelako. Urteak eman ditut primateen jokamoldeak aztertzen, eta egun galderek hartu didate gaina. Zer den *jakitea* zehaztetik abia gaitzke eta ondoren zer den *ahula* edo *kementsua* izatea galdetu eta jarraian zertan datzan *arrakasta* edo *porrota* izatea eta gogorik izanez gero...

Nire lagunei entzuten ari nintzela, arte-lan batek ez gaituela nahitaez gizakoiago egiten eta antzeko beste bizpahiru gai —Mendebaldeko gizartean honezkero nahiko jorratuak— etorri zitzaizkidan gogora (George Steiner-en hausnarketa zorrotza bezain kezkarria izan zen iristen aurrenekoa). Halakoak bazter batean utzita, beste ildo batetik joan zitzaidan pentsamendua.

Escuchando a mis amigos, me vino a la cabeza que una obra de arte no nos hace necesariamente más humanos, y otras tres o cuatro consideraciones paralelas ya bastante tratadas en la sociedad occidental (la primera reflexión que reverdecí en mi memoria fue la tan atinada como lacerante de George Steiner). Una vez arrinconadas las mismas, el pensamiento se me fue por otros derroteros.

La lectura también me ha enseñado a escuchar. Al seguir las peripecias de un personaje a lo largo de una obra literaria, queremos saber qué le mueve a actuar como actúa y cómo responde ante los resultados o las consecuencias que le acarrea su actuación; para eso, además de lo que dice y hace, también será importante tener en cuenta su actitud, comportamiento, costumbres, forma de vestir, semblante, ojos... Respecto a los escritores, si tengo entre mis manos algún libro de alguno de confianza, lo leo hasta el final, porque sé que no me defraudará: sé con antelación que pudo acertar o no en la plasmación de su proyecto y, por tanto, que pudo cuajar una obra más o menos lograda, pero junto a esto sé también, de igual modo, que si me esfuerzo seguro que encuentro algo de provecho en su obra (como he dicho, me refiero a escritores de confianza. Todos los años hago un safari, a ver si cazo algún escritor desconocido que merezca la pena añadirlo a mi lista de trofeos)... Quiero creer que todo esto me enseña también a escuchar lo que tienen que decir las personas de mi alrededor.

La lectura es una actividad que se lleva a cabo en soledad, compartida con los personajes. Por supuesto, los momentos compartidos con unos son más agradables que los compartidos con otros. Algunos personajes no perciben los matices y utilizan modelos en blanco y negro para descifrar la realidad: o conmigo o contra mí, gritan, aunque sea en voz baja. En opinión de otros, todo tiene el mismo valor; por lo tanto, todo es lo mismo, como si lo blanco y lo negro fueran inocuamente equiparables. El neurólogo Richard Gregory dijo que las percepciones son alucinaciones controladas y que la función del cerebro es ayudar a sobrevivir, no buscar la verdad. La percepción de algunos personajes es una alucinación bajo la influencia del dogmatismo. En otros, la alucinación del cinismo tiene un efecto más violento. A mí, los personajes que me atraen son los perdedores. Algunos de ellos saben levantarse cuando se caen y, por eso, no han fracasado en la vida, siempre en función de la dignidad de cada uno; otros perdedores, por el contrario, es verdad, no encuentran el modo de ponerse en pie. Frente a los perdedores, existen personajes que han fracasado en sus vidas a pesar de haber resultado ganadores a los ojos de la historia. Conocer a éstos también me enriquece. Así, para mí, la literatura deviene antropología. Penélope, Ana Karenina, Madame Bovary..., ¿qué imagen de la mujer refleja o qué rasgo humano subraya cada una de ellas? Ulises, Aliosha Karamazov, Gregorio Samsa, Herzog..., ¿qué imagen del hombre refleja o qué rasgo humano subraya cada uno de ellos?

En la afirmación de Richard Gregory me llama la atención la palabra *verdad*. Desde otro ámbito del conocimiento, la Teoría Crítica de la Escuela de Frankfurt afirma que las ideologías suelen ser construidas por ciertos grupos para legitimar sus intereses.

—Irantzu, de pequeña, antes de dormirse le contaba a Txalin, el mono de peluche que llevaba consigo a la cama, el cuento o la historia que acababa de leer —dijo Iratxe.

Irakurtzeak entzuten ere irakatsi dit niri. Literatur lan bateko pertsonaia baten joan-etorriak jarraitzean, zerk bultzatzen duen egiten duena egitera jakin nahi izaten dugu eta nola erantzuten duen egindakoak eskaintzen dizkion emaitzen edo dakarzkion ondorioen aurrean; horretarako, dioenaz gain, bere jarrera, jokabidea, azturak, janzkera, aurpegiera, begiak... kontuan hartzea ere garrantzitsua izango da. Idazleak direla-eta, konfiantzazko bataren baten libururen bat hartzen badut esku artean, bukaeraraino irakurtzen dut, badakidalako ez didala iruzurrik egingo: aldezturik dakit asma zezakeela ala ez bere asmoari dagokionez eta, hortaz, lan txukunagoa ala baldarxeagoa atera zekiokela, eta horrekin batera badakit, baita ere, saiatzen banaiz ziur aurkituko dudala probetxuzko zerbait bere ahaleginean (esan bezala, konfiantzazko idazleez ari naiz. Urtero egiten dut safari bat, ea merezi duen idazle ezezagunen bat ehizatzen dudan nire zerrendan biltzeko)... Sinetsi nahi dut horrek guztiak ondoan egokitzen zaizkidanek esateko dutena entzuten ere trebatzen nauela.

Pertsonaiekin partekaturiko bakardadean burutzen den jarduna da irakurtzea. Jakina, batzuekin emandako uneak beste batzuekin iragandakoak baino atseginagoak izaten dira. Pertsonaia zenbaitek ez du ñabardurarik hautematen eta zuri-beltzezko moldeak osatzen ditu errealitatea ulertzeko: nirekin ala nire aurka ari da oihukatzen, ahopean bada ere. Beste batzuen usteetan, dena da balio bereko; ondorioz, berdin du guztiak, zuria eta beltza gauza bera balira bezala. Richard Gregory neurologoak esan zuen pertzepzioak haluzinazio kontrolatuak direla eta garunaren eginkizuna bizirauten laguntzea dela, ez egia bilatzea. Pertsonaia batzuen pertzepzioa dogmatismoaren eraginpeko haluzinazioa da. Beste batzuegan erasan bortitzagoa izaten du zinismoaren haluzinazioak. Ni erakartzen nauten pertsonaiak galtzaileak dira. Beretariko batzuek erori eta jaikitzen dakite, eta, horregatik, ez dute porrot egin bizitzan, beretariko bakoitzaren duintasunaren arabera betiere; galtzaile-etariko beste batzuek, aldiz, egia da, ez dute aurkitzen zutik jartzeko modua zein den. Galtzaileen aurrez aurre, badira historian garaile gertatu izanagatik beren bizitzetan porrot egin duten pertsonaiak. Horien berri edukitzea ere gustatzen zait. Halatan, antropologia ere bilakatzen da literatura niretzat. Penelope, Ana Karerina, Madame Bovary... emakumearen zein irudi islatzen du edo gizakiaren zein ezaugarri azpimarratzen beretariko bakoitzak? Ulises, Aliosha Karamazov, Gregorio Samsa, Herzog... gizonezkoaren zein irudi islatzen du edo gizakiaren zein ezaugarri azpimarratzen beretariko bakoitzak?

Richard Gregoryren azalpenean egia hitzak ematen dit arreta. Beste jakintza-esparru batetik, Frankfurtoko Eskolako Teoria Kritikoak dio zenbait taldek beren interesak zilegiztatzeko eraikiak izan ohi direla ideologiak.

—Irantzuk, txikitan, ohera eramaten zuen peluxe-zko Txalin tximinoari kontatzen zion begiak bildu aurretik irakurritako ipuina edo dena delako pasarte —esan zuen Iratxek.

Banekien Joxemiri ez zitzaiola galdera ahaztuko:

—Eta zuk zergatik idazten duzu? —bota zidan isilunea egin zenaz batera.

Eskoletan-eta gazte-jendeak maiz egiten duen tankerakoa zen Joxemiren galdera. Haurtzaroan hitzekin jolastea gustatzen zitzaidala aitortzen diet halakoetan; adibidez, esanahia ezagutzen ez nion berba bat entzuten edo irakurtzen nuelarik, berba hura bere hotsagatik zer aldarteta-

Sabía que no se le olvidaría la pregunta a Joxemi:

—Y tú, ¿por qué escribes? —me preguntó en el mismo momento en que se hizo un silencio.

La pregunta de Joxemi era del estilo de las que habitualmente hacen los estudiantes a los escritores que les visitan en las escuelas. En esas ocasiones yo les confieso que en mi niñez me gustaba jugar con las palabras; por ejemplo, cuando escuchaba o leía una palabra que no conocía, trataba, atendiendo a su sonido, de catalogarla según su estado de ánimo habitual o carácter que yo creía barruntar —imaginariamente, claro está—: la palabra en cuestión podía ser triste o vivaracha o divertida o estúpida... Otra costumbre que tenía era abrir libros con distintos tipos de letra encima de una mesa o en el mismo suelo. Podía pasarme horas mirando cómo eran las olas que formaban las líneas en cada uno de aquellos mares. Pensé que todo esto era demasiado empalagoso para contárselo a mis amigos; además, así les habría dado pistas para darse cuenta de lo precoz de mi patología.

—A mí la escritura me ayuda a andar por la vida ojo avizor —comencé diciendo—. Normalmente, completo un proceso de tres pasos. El primero consiste en tratar de tener un conocimiento lo más amplio posible de lo que ocurre a mi alrededor. Para eso, además de los periódicos, me gusta leer de todo: psicología, filosofía, sociología, economía, arquitectura, física, biología... hasta las hojas de publicidad que meten en los buzones. En un segundo momento, trato de *metabolizar* con tranquilidad todo lo recabado. Y en tercer lugar, me trazo

226

como objetivo intentar mostrar aspectos de la historia por medio de historias, sabiendo perfectamente de antemano que todo lo que pueda conseguir no será más que una modesta aproximación. (En todo esto procuro tener en cuenta las tres dimensiones de la realidad y la historia: la individual, la interpersonal y la social). Además, intentar formular la realidad ayuda a percibir rasgos de la misma que de otro modo pueden pasar inadvertidos. Porque nunca debemos olvidar que eso que tomamos como realidad no es la realidad en cuanto tal, sino una imagen de la misma, que cada uno de nosotros la vamos construyendo a nuestra manera. Por otro lado, en el diseño de esa imagen influye, en mayor o menor grado, la concepción hegemónica que impera en nuestro entorno, porque tampoco debemos olvidar que tendemos a tomar como sensato o natural lo que no son más que convenciones sociales o componentes del imaginario cultural que hemos heredado. Y la función de la literatura, en cuanto que la consideramos arte, es mostrar que hay más miradas que la que se nos ofrece —cuando no se nos impone— en nuestro entorno. —En ese momento me acordé de lo que Hegel, hablando de la historia, propuso como finalidad del espíritu: ser consciente de sí mismo; y también me acordé de la diferencia que establece Aristóteles, en su Poética, entre el historiador y el poeta: uno da constancia de lo acontecido y el otro, por el contrario, desarrolla o imagina lo que podría haber acontecido. Sin embargo, decidí seguir por otros senderos—: En todo esto es sorprendente la influencia del lenguaje. Por ejemplo, tomemos la palabra “bruja”. Esta palabra no tiene el mismo significado en Haití y en este entorno de Zugarramurdi, o para los actuales habitantes de este lugar no tiene el mismo significado que el que tenía para sus antepasados hace cuatrocientos años. Gracias al lenguaje nos entendemos a nosotros mismos, organizamos nuestro mundo interior y podemos expresar lo que sentimos. Más aún: el lenguaje nos ayuda a construir nuestro psiquismo, sin palabras



koa izan zitekeen irudikatzen saiatzen nintzen: goibela, bizia, umoretsua, ergela... Neukan beste ohitura bat zen hizki-mota ezberdinak zerabiltzaten liburuak zabaltzea mahai baten gainean edo lurrean bertan. Orduak eman nitzakeen itsaso haietariko bakoitzean lerroek osatzen zituzten olatuak nolakoak ziren begira. Hori guztia milingatsuegia zela pentsatu nuen lagunei kontatzeko; gainera, nire patologiarekin ohartzeko arrastoak emango nizkiekeen horrela.

—Niri idazteak laguntzen dit begiak ahalik eta zabalena ditudala ibiltzen bizitzatik —hasi nintzen esaten—. Eskuarki, hiru pausoko prozesua osatzen dut. Lehenengo pausoa da inguruan gertatzen denaren ahalik eta ezagutzarik zabalena izaten saiatzea. Horretarako, egunkariez gain, denatarik irakurtzea gustatzen zait: psikologiak, filosofiak, soziologiak, ekonomiak, arkitekturak, fisikak, biologiak... Bigarren pauso batean, jasotako guztia patxadaz *metabolizatze*-ko ahalegina egiten dut. Eta hirugarrenez, istorioen bidez Historia azaltzera hurbiltzea jartzen diot helburutzat neure buruari, alde zurretik ongi dakidala nik egin dezakedan guztia hurbilketa xume bat besterik ez dela izango. (Horretan guztian gogoan daukat Historiaren edo errealiatatearen izaera hirukoitza: gizabanakoaren errealtatea, pertsonartekoa eta gizartekoa.) Bestela oharkabean iragan daitezkeen errealtatearen ezaugarriak hautematen laguntzen du dena delako errealtate hori adierazten saiatzeak. Ez dugulako egundo ahaztu behar errealtatez hartzen dugun hori ez dela errealtatea bere horretan, gutariko bakoitzak errealtateaz eraiki duen irudia baizik. Beste alde batetik, irudi hori eraikitzean eragin larriagoa edo arinagoa izan lezake inguruan hedatuen dagoen adiera hegemonikoak, ez baitugu ahaztu behar, ezta ere, zentzuzko eta naturaltzat hartzeko joera dugula gizarte-konbentzioak edo jaso dugun iruditeria kulturalaren osagaiak besterik ez direnak. Eta literaturaren egin-kizuna, artea den heinean, hedatuen dagoen begirada hori baino gehiago ere bada-goela erakustea da. —Une horretan oroitu nintzen Hegelek, historiak ziharduelarik, zer proposatu zuen espirituaren helmugatza: espiritu hori bere buruaz jabetzea; eta oroitu nintzen baita Aristotelesek bere *Poetik*an historialari eta poetaren artean azaltzen zuen ezberdintasunaz ere: bata gertatutakoa jasotzen du eta besteak, aldiz, gerta zitekeena gartzatzen edo irudikatzen. Hala ere, beste ildo batetik jarraitzea erabaki nuen—: Horretan guztian harrigarria da hizkuntzaren eragina. Adibidez, har dezagun «sorgin» hitza. Hitz horrek ez du esanahi bera Haitin eta Zugarramurdi inguru honetan, edo hementxe bertako egungo biztaleentzat ere ez dauka duela lauhun urte beren arbasoentzat zeukan adiera bera. Hizkuntzari esker ulertzen dugu norberaren burua, antolatzen dugu barneko mundua eta adieraz dezakegu sentitzen duguna. Are gehiago: hizkuntzak psikismoa eraikitzen laguntzen digu, hitzik gabe ez dago pentsamendurik... eta tiraka eta tiraka jarrai dezakegu. —Hizkuntza zeinen manipulagarria den eta horren ondorioak zeinen larriak izaten diren pentsatu nuen; Wittgensteinek esandakoak etorri zitzaizkidan gogora. Gehiegi ez luzatze aldera, bide hori etetea pentsatu nuen, ez niolako, Javier Cercasi irakurritakoaz baliaturik, honako hau aipatze-ari ukorik egin nahi—: Batzuek uste dute idaztea eta pentsatzea bizitzaren ordezko direla, eta, jakina, bizitzea dela kitzikagarria eta arriskutsua. Eta alderantziz balitz? Nire irudiko, mito erromantikoak dioenez beste, idazleak nahiko lukeena ez da modurik muturrekoenean bizi; aitzitik, bere ausardia guztia modurik arriskugarrienean idazteko behar du. Idazleak ez du errealtateetik ihes egiteko idazten, errealtatearekin zuzenago solasteko baizik. —Esandakoak esanda, Claudio Magrisek bere literatur lanetan eta jardun intelektualean errealtatea nola ara-

no hay pensamiento... y podemos seguir tirando del hilo ininterrumpidamente. —Pensé en lo manipulable que es el lenguaje y las graves consecuencias que acarrea esto; me vinieron a la mente las proposiciones de Wittgenstein. Para no alargarme demasiado, interrumpí esta reflexión, porque, valiéndome de lo que en cierta ocasión le leí a Javier Cercas, no quería renunciar a mencionar lo siguiente—: Algunos creen que la escritura y el pensamiento son sucedáneos de la vida y, claro está, que es la vida la que resulta excitante y arriesgada. ¿Y si fuera al revés? En mi opinión, en contra de lo que dice el mito romántico, lo que querría el escritor no es vivir del modo más extremo; toda su audacia la necesita para escribir del modo más arriesgado. El escritor no escribe para huir de la realidad, sino para dialogar más directamente con ella. —Dicho esto, me acordé de cómo disecciona la realidad Claudio Magris en sus trabajos literarios y, en general, a lo largo de toda su actividad intelectual. No mencioné nada de esto—. De cualquier modo, me doy cuenta de que el juego es resbaladizo. ¿Pero es que acaso no son este tipo de ocupaciones las más interesantes de la vida? Ya veis, no me faltan preguntas y estoy lleno de dudas. —Y para edulcorar lo dicho riéndome ligeramente de mí mismo, terminé de este modo—: El escritor Monterroso, que escribió el cuento de una sola línea sobre el dinosaurio, dijo, con su fina ironía, que la literatura era el opio de las clases medias e, igual que el cine, una fábrica que construía sueños en el aire. El poeta Gottfried Benn dijo cosas aún más crueles sobre el arte: “Es una actividad de cincuenta, de los cuales treinta no son normales”.

228

—¿Tú para quién escribes? —me preguntó Iratxe—. ¿Cómo es el lector que tienes en mente cuando estás escribiendo?

—Yo, cuando estoy escribiendo, no me suelo acordar del lector. Mi afán es ser honesto con la historia que estoy narrando y con los personajes de la misma. Por tanto, quiero pensar que mis trabajos les resultarán interesantes a aquellos que están dispuestos a acercarse a las historias de otros y ponerse en la piel de los personajes. Antes he dicho que la literatura es una actividad que me ayuda a transitar atentamente por la vida. De ahí puedo deducir que las situaciones y problemas que presento en mis trabajos le pueden interesar al lector que anda por la vida con los ojos abiertos, al lector que no tiene miedo de replantearse sus preocupaciones, es decir, a aquel que está dispuesto a cuestionarse sus opiniones, sus conocimientos, sus creencias y sus emociones. —Aprovechando el interés que mostraban mis amigos, decidí proseguir con mi exposición—. Si me dejáis ampliar la perspectiva, en los últimos setenta años se ha ido evidenciando de día en día el límite entre los ámbitos de las *ciencias* y las *letras*, se ha reforzado la tendencia a subrayar las diferencias entre ambos, mucha gente de un ámbito no quiere saber nada del otro. La gente de letras, si no tiene en cuenta las aportaciones de las ciencias, tendrá un gran vacío en la imagen que puede formarse del ser humano. Los científicos, si le hacen oídos sordos a las propuestas que presenta el mundo de las letras, podría ser que vieran más difuminado el objetivo de sus investigaciones. Todas las ciencias son vías complementarias para conocer al ser humano. Por tanto, nos es necesario lo que algunos llaman “la tercera cultura”. Cada ciencia, claro está, tiene su epistemología, sus procedimientos y su autonomía, sin embargo no tendría que olvidar que sus logros no dan cuenta más que de una única cara de una realidad multifacética.

katzen duen oroitu nintzen. Ez nuen ezer aipatu—. Nolanahi ere, jabetzen naiz jokia irristakorra dela. Halakoxeak ez ote dira, bada, bizitzako jardunik interesgarrienak? Ikusten duzue, kezkatuik eta zalantzaz betea nago. —Eta esandakoa neure buruari irri apur bat eginez arintzeko, honela amaitu nuen—: Dinosauoaren lerro bakarreko ipuina idatzi zuen Montegroso idazleak zioen, bere iseka finaz, literatura klase ertainen opioa zela, eta, zinema bezalatsu, ametsak airean eraikitzen zituen lantegia. Gottfried Benn poetak gordinagorik ere esan zuen arteaz: «Berrogeita hamarren jarduna da eta horietatik hogeita hamar ez dira normalak».

—Zuk norentzat idazten duzu —galdetu zidan Iratxek—. Nolakoa da buruan izaten duzun irakurlea idazten ari zarenean?

—Nik, idazten ari naizenean, ez dut irakurlea gogoan izaten. Nire ahalegina da kontaktzen ari naizen istorioarekin eta bertako pertsonaiekin zintzoa izatea. Beraz, pentsatu nahi dut beste batzuen istorioetan eta pertsonaien larruetan sartzeko gogoia eta jarrera dutenei gertatuko zaizkiela interesgarri nire lanak. Lehen esan dut bizitzatik erne ibiltzen laguntzen didan jarduna dela literatura. Hortik ondoriozta dezaket bizitzatik begiak irekita dabilen irakurleari interesa dakizkiokeela nire lanetan aurkezten ditudan egoerak eta arazoak, kezkak planteatzeko beldurrik ez duen irakurleari, bere iritziez, ezagutzez, usteez eta emozioez galderak egiteko gertu dagoen irakurleari, alegia. —Nire lagunen arreta profitatuz, tirakada bat gehiago eman nion nire azalpenari—. Uzten badidazue hausnarketa zabaltzen, azken hirurogeita hamar urtean egunetik egunera nabarmenagotu egin da *zientzien* eta *letren* esparruen arteko muga, bien arteko ezberdintasunak azpimarratzeko joera indartu da, bateko jende askok ez du bestekoaren berririk eduki nahi. Letretako jendeak, ez baditu zientzien ekarpenak aintzat hartzen, hutsune handiko herrera izango du gizakiari buruz osa dezakeen irudian. Zientzialariak, letren munduak aurkezten dituen proposamenei entzungor egiten badie, baliteke lausotuago ikustea bere ikerketaren helmuga. Gizakiaz jakiteko bide osagarriak dira zientzia guztiak. Hortaz, beharrezkoa dugu zenbaitzuek «hirugarren kultura» deritzotena. Zientzia bakoitzak, jakina, bere epistemologia, jardunbidea eta autonomia dauzka, haatik ez luke ahaztu behar bere lorpenekin errealitate aurpegianitzaren hazpegi bakararren berri baino ez duela.

—Ama, aita, liburutegira noa, hereneguko liburua eramatera eta berri bat hartzera —esan zien Irantzuk, ziurrenik nagusiok generabilen hizpideak eraginda.

Haurraren etenak eragotzi egin zidan nire gogoeta erabat lotzea. Gainera, lñaki ere sartu zen tartean:

—Behin aditu nizun zuk bereizi egiten dituzula literatura eta *ingeniaritza literarioa*, nahiz eta biek elkarren beharra eduki.

Aurreko gogoeta nahi bezala lotu gabe uzteak ez ninduen kezkatzen, nire lagunak horretarako eta gehiagorako ere gai direlako. Kontua da Xabier ikusi nuela, edalontzia jaso, okertu, eta aspaldi hondoan geraturiko azken garagardo-tanta nagia ahora bidean jartzen.

—Nik gustura jarraituko nuke hizketan, baina gaurkoan badaukagu beste lan bat ere egiteko, ezta? —esan nuen.

—Mamá, papá, me voy a la biblioteca, a llevar el libro de antes de ayer y a coger otro —les dijo Irantzu, seguramente movida por la conversación que teníamos los mayores.

La interrupción de la niña me impidió rematar mi argumentación. Además, Iñaki también se metió de por medio:

—Una vez te escuché que distingues la literatura de la *ingeniería literaria*, aunque ambas se necesitan mutuamente.

No me preocupó el no haber hilvanado como me hubiera gustado mi reflexión anterior, ya que mis amigos son capaces por sí mismos de eso y de mucho más. El tema es que vi a Xabier levantar el vaso, inclinarlo y dirigir a la boca la última y perezosa gota de cerveza que le quedaba desde hace tiempo en el fondo.

—A gusto seguiría charlando, pero hoy tenemos también otro trabajo que hacer, ¿verdad? —dije.

—Podemos seguir luego hablando del tema —propuso Iratxe.

En cuanto me puse a pintar la parte superior de la pared que da al bosque, mi pensamiento se me fue detrás de Irantzu. Ahí me veía en la vieja biblioteca de Bermeo: era una tarde de invierno y tenía entre las manos un libro de Salgari, e, imaginando a Sandokan sudoroso bajo el sol de las tierras de Borneo, miraba el rojo incandescente de la calefacción de butano que solía estar en un rincón de la sala, cruzando los brazos bajo el pecho para ceñir más estrechamente el abrigo a mi cuerpo.

**230**

A la hora de comer hablamos de la educación de los hijos, de la trayectoria de algunos amigos, de fútbol, de pelota y de más cosas. A pesar de que no vimos la oportunidad de volver a hablar sobre literatura, la conversación me resultó muy agradable.

—Hasta cuando quieras —me dijo Iratxe al despedirnos—, ya sabes dónde tienes un rincón tranquilo para escribir.

—Gero jarrai dezakegu horretaz solasten —proposatu zuen Iratxek.

Baso aldeko hormaren goiko zatia margotzen jarri bezain laster, Irantzuren atzetik joan zitzaidan pentsamendua. Han ikusten nuen neure burua Bermeoko liburutegi zaharrea: neguko arratsalde bat zen eta Salgariren libururen bat neukan esku artean eta, Sandokan izerditan irudikatzen nuelarik Borneo inguruko eguzkipean, bazterrean zegoen butanozko berogailuaren gorritasunari begiratzen nion besoak bularpean gurutzatzen nituela berokia gorputzari estuago biltzeko.

Seme-alaben heziketaz, zenbait lagunen ibilbideaz, futbolaz, pilotaz eta bestelakoez aritu ginen bazkalorduan. Literaturaren inguruko gaiei berriz heltzeko aukerarik ikusi ez genuen arren, laket gertatu zitzaidan oso elkarrizketa.

—Nahi duzunean —esan zidan Iratxek agurtzerakoan—, badakizu non daukazun idazteko txoko baketsu bat.